



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

Arriaga Antzokiak *Moto-Membra Jesu Nostri* bere ekoizpen propioaren emanaldi bat eskainiko du larunbatean, datorren astean Esloveniara eraman aurretik

- Larunbatean, irailaren 27an, izango da ikuskizuna Arriaga Antzokian, eta datorren astean Ljubljana-ko Cankarjev Dom Cultural Centre-k, Esloveniako kultur eta kongresu zentrorik handienak, *Moto-Membra Jesu Nostri*ren emanaldi bat eskainiko du urriaren 2an (osteguna), DoSEL proiektuari esker.
- Ikuskizuna Lucía Astigarragak zuzentzen du, eta Eneko Sagardoyren testu zirraragarri bat eta Dietrich Buxtehuderren musika ederra fusionatzen ditu: Eneko Sagardoy bera arduratzen da testuaren antzezpenaz eta Conductus Ensemble musika interpretatzeaz, Andoni Sierraren gidaritzapean.
- Arriaga Antzokiak 30 urtetik beherako gazteei irailaren 26an, ostiralean, Entsegu Orokorra doan joateko aukera eskainiko die.

Bilbo, 2025eko irailaren 22a.- Bukatu da “udako denboraldia”, *Mamma Mia*-ren arrakastari helduta, eta iritsi da kurtsoari hasiera emateko ordua. Horretarako, Arriaga Antzokiak berraktibatu du bere *Moto-Membra Jesu Nostri* produkzio propioa, 2022ko urrian estreinatu zenean hain zapo ona utzi zuena. Larunbatean, irailaren 27an alegia, musika eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizun eder horren emanaldi bat eskainiko da arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Moto-Membra Jesu Nostri ekoizpen oso berezi bat da, musikalki **Andoni Sierrak** eta eszenikoki **Lucía Astigarragak** zuzentzen dutena. Publikoak musikaren historiaren maisulan baten interpretazioa entzungo du, 1680an **Dieterich Buxtehude** konposatutako *Membra Jesu Nostri* kontzertuarena, zeina, maisulan bat izan arren, ez baita oso ezaguna publiko orokorraren artean. Kristoren oinei, belaunei, eskuei, saihestari, bularrari, bihotzari eta aurpegiari eskainitako, eta zazpi kantataz osatutako zikloa musika barrokoan eta errenazentistan espezializatutako **Conductus Ensemble** talde ezagunak interpretatzen du zuzenean. Taldea 15 ahotsek eta 11 instrumentistak osatzen dute, Andoni Sierra bera tartean dela.

Interpretazio musikalak maisutasunez egiten du bat **Eneko Sagardoyk** berak antzezten duen eta ikuskizun honetarako berariaz sortu duen testu zirraragarriarekin.



DRAMA
OF SMALLER
EUROPEAN
LANGUAGES



Co-funded by
the European Union



Ustezko motor istripu batean behin betiko desagertzen den gizon bati eta geratzen den haren maitasunari buruzko testu bat da. Egile germaniar-daniarraren musika finaren eta Sagardoyren testu hunkigarriaren artean eszenan gertatzen den elkarriketak edertasun handiko uneak sortzen ditu. Eta hori guztia Lucía Astigarragaren eszena garaikide zaindu baten baitan gertatzen da. Astigarraga, ikuskizuna zuzentzeaz gain, dramaturgia eraikitzeaz eta eszenografia diseinatzeaz arduratu da.

... eta jarraian Esloveniara

Arriaga Antzokiko emanaldia gertatu eta egun gutxira, beste emanaldi berezi bat egongo da, urriaren 2an, ostegunean, **Eslovenian**, hain zuzen: **Cankarjev Dom Cultural Centre Esloveniako** kultur eta kongresu zentro handiaren izango da, **Ljubljana** hiriburuan. Ikuskizun osoa jatorrizko bertsioan antzeztuko da, euskarazko testuekin (gaztelaniazko pasarteren batekin) eta eslovenierazko azpitituluekin.

Cankar aretoak —kulturgune horren euskarazko izenaren arabera— Ivan Cankar (1876-1918) esloveniar idazle eta politikariari zor dio izena eta bertan izango da, urriaren 2an, emanaldia, **DoSEL** (Drama of Smaller European Languages) **proiektuaren** esparruan. Komeni da gogoraraztea Arriaga Antzokiak Europar Batasunaren finantzaketa ere baduen proiektu horretan parte hartzen duela, hizkuntza gutxituetan lan egiten duten kontinente zaharreko beste zazpi gunerekin batera: Presernovo gledališce Kranj (Eslovenia), National Agency for the Performing Arts (Malta), Croatian National Theatre in Zagreb (Kroazia), Foundation Estonian Theatre Agency (Estonia), National Theatre of Kosovo (Kosovo), "Ivan Vazov" National Theatre (Bulgaria) eta Sala Beckett (Katalunia). Arriaga Antzokiak **Etxepare Euskal Institutuaren** elkarlanarekin hartzen du parte DoSEL proiektuan.

DoSEL proiektuak Europako aniztasun kulturala sustatzea du xede, esperientziak trukatzu eta Europako beste antzoki batzuekin lankidetzan jardunez, horiek ere lurralde eremu txikiak hizkuntzatan lan egiten baitute. Elkarlan horren ondorioz sortu da *Moto-Membra Jesu Nostri* kontzertu eszenifikatu ederra Esloveniara eramateko aukera. Arriaga Antzokiaren produkzio propio bat Eslovenian antzezteko Arriaga Antzokiak nazioartean duen posizionamendu onaren beste adibide bat da. Horrez gain, euskarazko dramaturgia gure lurralde-eremutik kanpo irteteak, hasiera batean iritsezinak diren lekuetan ikusgai jartzera iritsiz, hesiak hausteko garrantzitsuak diren ikusgaitasuna eta proiektzioa ematen dizkio. Hori da, zalantzarik gabe, DoSEL (Drama of Smaller European Languages) europar proiektuaren helburuetako bat.

Entsegu Orokorra, doan 30 urtetik beherakoentzat

30 urtetik beherako gazte guztiek (30 urtekoak barne) *Moto-Membra Jesu Nostri* ikuskizunaren Entsegu Orokorra doan joateko aukera izango dute irailaren 26an (ostirala), 19:00etan, non eta Arriaga Antzokian.

Sarrerak txarteldegian bertan jaso ahal dira, gehienez bi sarrera pertsonako. Arriaga Antzokiko Lagunek bakarrik erosi ahal izango dituzte online Entsegu Orokorrerako sarrerak, dagokien kodea erabiliz. Sarrerak jada eskuratu daitezke, edukiera bete arte.



DRAMA
OF SMALLER
EUROPEAN
LANGUAGES



Co-funded by
the European Union



Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus



DRAMA
OF SMALLER
EUROPEAN
LANGUAGES



Co-funded by
the European Union



Funded by the European Union. Views and opinions expressed are however those of the author(s) only and do not necessarily reflect those of the European Union or the European Education and Culture Executive Agency (EACEA). Neither the European Union nor EACEA can be held responsible for them.